

IKERKUNTZA. Ikerketaren inguruan zalantza etikoak daude, erabilera gaiztoa izan baitezake

Laborategian bizitza mota berri bat sortzeko egitasmoa aurkeztu dute

Craig Venter eta Hamilton Smith zientzialariak dira proiektuaren sortzaile eta eragile nagusiak


Erredakzioa | **DONOSTIA**

Craig Venter eta Hamilton Smith ikertzaileek asmo handi-
nahia egin zuten atzo publiko:
laborategian bizitza mota berri
bat sortu nahi dute. Itzal handi-
ko ikertzaileak dira biak. Venter
Giza Genoma proiektuaren era-
gile garrantzitsuenetakoa izan
zen, eta Smithek, berriz, 1974.
urteko Medikuntza Nobel Saria
jaso zuen. Horregatik, jakin-
min handia eragin zuten atzo.

«Nolabait ere, genoma sinte-
tiko bat sortzera goaz», azaldu
zuen Hamiltonek, «egiteko lu-
zea izango da». Buruan dutena
gauzatzen bada zientziaren eta
gizateriaren historian mugarri
garrantzitsua ezarriko dutela
esan zuten, hein batean, bizitza
bera ulertu ahal izango dutela.
«Bizitzaren definizio molekula-
rraren bila ari baikara», zehaztu
zuen Venterrek.

Bizidun berria sortzeko «mol-
de» gisa gizakien gernu aparatu-
tako organismo bat erabiliko
dute, *mycoplasma genitalium*
izenekoa. Ezagutzen diren or-
ganismoen artean sinpleena da,
517 gene baino ez ditu. Horieta-
tik, gainera, 265-350 baino ez
ditu behar beharrezkoak iraute-
ko.

Venterrek eta Smithek, abia-
puntu horretatik, bizidun zelu-
labakari bat sortu nahi dute.
Irauteko derrigorrezkoak diren
geneak baino ez dituela izango
azaldu dute. Horretarako aipa-
tu organismoaren informazio
genetikoa erauzi eta kromoso-



STEPHEN JAFFE / EPA

Craig Venterrek bizitzaren definizio molekularra aurki dezaketela iradoki du, baikor.

ma artifizial bat lortzen saiatu-
ko dira.

AEBetako Energia Sailaren diru laguntza

Egitasmoa Ameriketako Esta-
tu Batuetako Energia Sailak di-
ruz lagunduko du. 3 milioi dol-
lar emango ditu. Nolanahi ere,
proiektu horren inguruan za-
lantza etikorik ez da falta. Ara-
zorik arantzatsuen sortzen
den bizitza mota berriaren
arriskugarritasuna da, izan ere,
gaitzak kutsa ditzake.

Ikerketa horrek izan dezake-
en erabilera gaiztoa ere hartu
dute zenbaitzuk ahotan. Bizi-
dun berria lortzeko egiten di-
ren aurkikuntzak erabiliz arma
biologikoak egin ahal izango
direla uste dute zenbaitzuk.

Craigek eta Venterrek kon-
trol eta segurtasun neurri zo-
rrotzekin jardungo dutela esan
dute. Aditza eman dutenez,
sortuko den biziduna soilik la-
borategian bizitzeko gai izango
da, handik kanpora hil egingo
da.

Amets ere egin dute bi iker-
tzaileok etorkizunean bizitza
klase berri honi eman ahal izan-
go zaizkion erabileren ingu-
ruan. Esaterako, gai kutsaga-
rriak —adibidez karbono dioxidoa—
xurgatzeko erabili ahal
izango dela diote, edo eta hi-
drogenoa sortuko balu energia
iturri aparta izango litzatekeela.

Horretarako oraindik bide lu-
zea egin behar dutela ondo da-
kite zientzialariek. Lanean ja-
rraitu nahi dute, ordea. Bizitza-
rekin jolasean.

ERLIJIOA

Munduko miss lehiaketaren aurkako ekintzetan 50 nigeriar hil dira

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Abenduaren 7an Mundu-
ko Missa aukeratzeko
lehiaketa egingo da Nige-
rian. Zenbait talde islam-
dar txapelketaren aurka
agertu dira, «iraingarria
eta moralgabea» delako.
Atzo, lehiaketaren aurka
Kaduna hirian antolaturi-
ko manifestaldien ostean
izandako istiluetan gu-
txienez 50 pertsona hil zi-
ren.

Musulman gazteek ba-
rrikada ugari jarri zituzten
hiriko kaleetan, horretaz
gain suteak eragin eta eli-
zak eraso zituzten. Pro-
testak batez ere *ThisDay*
egunkariak lehiaketaren
karietara egindako zen-
bait adierazpenen ingu-
ruan sortu ziren atzo. Ma-
homak *miss* izan nahi du-
ten neska gazteren bat
emazteztat hartuko luke-
la iradoki zuten egunka-
rian, eta musulmanak ha-
serretu egin dira hori ira-
kurrita.

Atzo Kaduna hiriko
egoera tamalgarria zela
zioten bertako iturriek.
«Eskolak eta bulego pu-
blikoak itxita daude, ne-
gozioak geratuta daude,
jendea etxean dago eta
segurtasun indarrak ma-
nifestarien kontra egiteko
ahaleginetan ari dira»,
azaldu zion AFP agentzia-
ri eskubide zibilen aldeko
ekintzaile Yusuf Sarkik.
Lehendik ere hiri horre-
tan erlijio gatazka han-
diak izan dira.

LABURRAN

ESPAZIOA

'Endeavour' espaziontzia gaur jaurtiko dute Nazioarteko Espazio Estaziora

Ameriketako Estatu Batuetako espaziorako agentziak (NA-
SA) aditza eman duenez, gaur jaurtiko dute *Endeavour* es-
paziontzia Nazioarteko Espazio Estaziora (ISS). Hilaren 11n
jaurti nahi zuten baina, espazioko jantziak oxigenoz horni-
tzen dituen sisteman izan matxurak atzeratu egin zuen.

OSASUNA

Haurrak gehiegi garbitzen direla iradoki dute

Egunotan dermatologia kongresu garrantzitsu bat egiten ari
dira Bartzelonan. Atzo, Ramon Grimalt dermatologoak ber-
tan adierazi zuenez, haurrak gehiegi garbitzen dira. Grimal-
ten arabera, xaboiak haurrek azalaren babeserako dituzten
koipeak hondatzen ditu. Horren ondorioz, umeen azalak ba-
besteko gaitasuna galtzen duela azpimarratu zuen

TEKNOLOGIA

Microsoften programazio akats batek babesik gabe utz ditzake milioika erabiltzaile

Interneteko Explorer programako
—sarean ibiltzeko Microsoftek ga-
raturiko sistema— programazio
akats batek babesik gabe utzi di-
tzake mundu osoko milioika era-
biltzaile. Akatsaren ondorioz, pi-
rata informatikoei milioika erabi-
ltzailearen zerbitzarietara sarbidea
izan dezakete. Gainera, pirata in-
formatikoei zenbait birus zabalt-
zeko erraztasun ugari dituzte.
Oraindik arazo handirik izan ez
bada ere zenbait adituen arabera
aurki ager daitezke.

INGURUMENA

Kanadako uretan bakailaoaren arrantza debekatzea aztertzen ari dira

Gero eta bakailao gutxiago dago Kanadan. Hori dela eta, ba-
kailaoaren arrantza epe mugarik gabe debekatzea aztertzen
ari direla adierazi dute Kanadako gobernutik. Iragarpenak
eztabaida handia sortu du. Proposamena aurrera aterako
balitz 35.000 lanpostu gal daitezkeela uste da.

IKERKUNTZA

Haurren miopia kentzeko egun erabiltzen den metodoa kritikatu dute ikerketa batean

Erresuma Batuan eginiko ikerketa batek gogor kritikatu ditu
haurren miopia kentzeko egiten diren ebakuntzak. Ikerketa-
ren arabera, ebakuntza horiek epe luzera oso kaltegarriak
dira, begia kaltetzen dutelako. Urteen poderioz erretina edo
glaukoma arazoak ager daitezke.